



## Eguberrietako hitzorduak Andoainen eta Urnietan



Larunbat honetan Eguberrietako festa Juanita Alkain plazan, Urkiren eskutik.

Eguberrien atarikoak, asteburu honetan hasita.

Andoaingo Udalak "Andoain Biz!" egitasmoa aurkeztu berri du, zeinean hamaika hitzordu iragarri dituen. Eguberriei loturiko ekitaldiak, nagusiki, baina baita Eguberrien bueltan arra-

kasta handiarekin antolatzen diren **IkusZirkus** zirko zikloa edota **Gazte Astea** ere. Egun hauetan, gainera, "Pixi post" euskarazko filmaren estreinaldia Andoainen bertan egingo dela jakin da. Eguberrietarako haur filmaren aurkezpena izango da. Ekoizpena, gainera, Andoainen bertan egin da **Somuga** enpresaren eskutik.



Olentzero eta Mari Domingi Berrasoetatik plazara hurbilduko dira, hilaren 23an.

Urnietako Eguberrietako egitaraua ere ekitaldiz beterik dator. Igande honetan "Albert" filma eskainiko dute Saroben, eta datorren astean zehar Lourdes Iriondo musika eskolako ikasleek kontzertu bereziak eskainiko dituzte.


Datorren asteazkenean, San Juan plazan **Santomas eguna** ospatuko du Iñistorra euskaltzale-

en biltzarrak. Jaia geroz eta urnietar gehiagoren bilgune bilakatzen ari da.

Abenduaren 24an kantuan atera nahi duenak, aldeztatik egingo dituzten entseguetan parte hartzeko aukera izango du. Zehazki, datorren abenduaren 20an eta 22an Lekaion iluntzeko 20:00etan hasita.

[AGENDA, 12. ORRIALDEA]

## Argazki erakusketa Ontza elkartearen



Joan zen abenduaren 7az geroztik, eta hilabetez, Ontza elkarteko argazki erakusketa zabalik egongo da, elkartearen bertan. Joxe Mari Tolosa erakusketaren partaideetakoak adierazi bezala, "argazkien bitartez nahiko garbi adierazten da elkartearen eta bazkideen bizitza. Ekarte honetan eseri eta jan besterik egiten ez dela pentsatzen duen jenderik egongo da oraindik, baina argazkietan argi ikusten da urtean zehar kulturarekin eta kirolarekin zerikusia duten ekimen parte hartzaile ugari prestatzen dela".

[ANDOAIN, 6. ORRIALDEA]

## Santomas ospakizuna Urnietan

Datorren abenduaren 21ean ospakizuna San Juan plazan, arratsaldean hasi eta iluntzera arte.

Iñistorra euskaltzaleen biltzarrak Santomas jaiaren edizio berria antolatu du San Juan pla-

zako Kontzejupean. Txorizoaz edota taloaz gozatzear gain, Urnietan bertan egindako etxe-ko sagardoa dastatu ahal izango da. Dagoeneko ohitura polita sortu da Urnietan ospakizun honen inguruan eta geroz eta gehiago dira egn berezi horretan herrian bertan geratzen direnak.

Sagardo onena aukeratzeko emoziorik ez da faltako, eta ohi bezala 700 euroko balioa duen Eguberrietako saskia zozketatuko da. Aurretik hiru sari gehiago zozketatuko dira saskirako erositako txartel berarekin. Musika, jana, edana..., denetik izango da Urnietan.


[URNIETA, 2. ORRIALDEA]



## Zanpatuz elkartearen urteko batzarra

Saroben 19:00etan hasita, batzarra, ikus-entzunezkoa eta ondoren afaria.

[URNIETA, 4. ORRIALDEA]



### Eguberrietan dantzan

**DEBALDE - PLAZA MUGATUAK - APUNTATU!!**  
IZEN-EMATEA: Saroben: Iurramendi 2, Urnieta

Abenduak 26, 27, 28 eta 29


+15 urte:  
10:00-11:30

12-13-14 urte:  
11:30-13:00

Abenduak 30, urtarrilak 2, 3, 5

+15 urte:  
10:00-11:30

12-13-14 urte:  
11:30-13:00



**HIP HOP**  
**SERCIO NGUEMA**

APUNTATU!!!!

ABENDUAK 21, ASTEAZKENA

# Santomas, geroz eta urnietar gehiagoren festa

Abenduaren 21ean, asteazkenarekin, Iñistorra elkarteak antolatutako hainbat ekitaldiren bidez, Santomas eguna ospatzeko aukera izango dute urnietarrek.

Aurreko urteetako moduan, ekitaldi guztiak San Juan plazan eta Kontzejupean egingo dira arratsaldeko 17:00 aldera hasi eta iluntzera arte.

## TXISTORRA, TALOAK, GAZTAINAK, SAGARDOA, TRIKITIXA...

Arratsaldeko 17:00etan irekiiko ditu Iñistorrak kontzejupean jarritako txistorra eta herriko baserrietako sagardoa dastatzeko postuak, era berean, taloak eta gaztain erreekin beste postu bana jarriko da. 20:30ak aldera bukatutzat emango da jaia Gabonetako saskiaren zozketarekin eta Sagardo Txapelketako irabazlearen botila baten enkantearekin. Bertan, izango dira jaia alaitzen, Lurdes Iriondo musika eskolako trikitilari gazteak. Aurten, berrikuntza izango da; saskiaren zozketarako zenbaki berdinarekin, arratsaldean zehar egingo diren beste hainbat zozketetan parte hartzeko aukera izango baitute bertaratzten direnek.

## GAZTAREN KINIELA

Aurreko urteetako moduan, gaztaren kiniela egingo da azokan, euro baten truke, han jarriko diren bi gazten pisua asmatu beharko da. Pisua asmatu edo gertuena ibiltzen denak eramango ditu bi gaztak etxera. Jada, gazta horiek San Juan plazako Kantoi tabernan, eta Idiazabal kaleko Guria tabernan daude eta bertan izango dira Santomas egunera arte, aurrez kiniela bete nahi dutenentzat.

## VII. SAGAR TARTA LEHIAKETA

Sagar tarta lehiaketa egingo da zazpigarren urtez. Bertara aurkezteko, aurrez etxean tarta egin eta arratsaldeko 16:00etatik 19:00etara bitartean udal txeko arkupeara eramatea



Geroz eta urnietar gehiago hurbiltzen da Urnietako Santomas ospakizunera.



Usadiozko sagardo txapelketak ikusmin berezia sortzen du Urnietan.

nahikoa izango da. Parte hartzea irekia da urnietarrentzat zein kanpotarrentzat.

Partaide bakoitzari txanpain botila bat emango zaio ordainetan, eta txapelketako irabaz-

leak sari bikaina jasoko du. Bigarrenak ere saria jasoko du. Ondoren, aurkeztutako tartak dastatzeko aukera emango zaie bertaratzten direnei.

## VIII. USADIOZKO SAGARDOAREN TXAPELKETA

19:30etik aurrera burutuko da egun horretako ekitaldirik nagusiena, VIII. Urnietako Usadiozko Sagardo Txapelketa. Txapelketa hau, etxerako sagardoa egiten duten urnietarrei zuzendua da, eta bertan parte hartu nahi dutenek 12 botilez osatutako kaxa bat aurkeztu beharko dute. Izena emateko, 685 561 718 telefono zenbakira deitu behar da. Epaimahaia, urtero bezala, hiru gizonez eta hiru emakumez osatuko da. Lehen hiru sailkatuek saria jasoko dute. Aurreko edizioetako txapeldunak

*Saskiaren zozketa egitearekin batera, aurten hiru opari berezi gehiago zozketatuko dituzte saskiaren erositako zenbaki berberak balioko duelarik*

baserri hauetakoak izan dira, Saurdei (birritan) Millluts, Antso, Errotaberri, Elutseta eta Errotaburu.

## SASKIAREKIN BATERA BESTE HIRU OPARI ZOZKETAN

Aurtengo Santomas eguneko txistor eta talo festan, urtero bezala saskiaren zozketa egitearekin batera, hiru opari berezi zozketatuko ditu Iñistorra Biltzarrak arratsaldean zehar, eta hiru opari horien zozketan saskirako erositako zenbaki berberak balioko du. Horrela, bada, 20:15ak inguruan zozketatuko den saskirako zenbaki horrek aurretik egingo diren hiru opariaren zozketetarako balioko du. Opariak, 25 euro eta 45 euro bitartekoak izango dira, produktuez eta jakiez osaturikoak.

Lehenengo oparia arratsaldeko 19:00etan zozketatuko da; bigarrena, 19:30ean eta hirugarrena 20:00etan. Azkenetarako geldituko da saskia, lehiaketa guztiak amaitu ondoren zozketatuko dena, aurten 700 euroko balioa izango duena. Ospakizuna borobiltzeko zozketa izango da.

Jaiari, izan ere, arratsaldeko 17:30ean emango zaio hasiera, Lourdes Iriondo musika eskolako trikitilarien soinuekin.

Ostegun honetan iluntzeko 19:00etan hasita, aurkezpena Lekaion

## Denboraren bankua, aurkezpena Urnietan

Beste hainbat herritan bezala, Urnietan ere berehala martxan jartzekoa da Denbora Bankua. Horretarako hainbat herritarrek bilera batzuk egin ondoren, datorren ostegunerako deialdia luzatu diete urnietar guztiei, behar den informazioa eskaini eta bertan parte hartzeko gonbitea egiteko. Bilera, abenduaren 15ean izango da arratsaldeko 19:00etan, Lekaio Kultur Etxean. Amaia Lopez, egitasmoaren eragileak eman ditu argibideak.



Esther Modia eta Amaia Lopez ekimenaren sustatzaileen artean daude.

### Zer da Denbora Bankua?

**Amaia Lopez:** Denbora mugatu batean zerbitzuak elkarren artean trukatzeko sistema da: ekin-tzak, jakintza, eskarmentua..., beti orduko. Sistema honetan ez da dirurik erabiliko, denbora erabiliko da trukean. Zerbitzu bakoitzak eta parte hartzen duten pertsonen denborak balio bera izango dute, ez da bata bestea baino gehiago eskertuko. Zerbitzu bat behar denean, behar duzun zerbitzua eskaini dezakeen pertsonarekin harrema-

netan jarri, ondoren zerbitzua egin eta erabilitako denbora zure kontutik zerbitzua eskaini dizun pertsonaren kontura transferituko da.

### Zein balore hartzen ditu kontuan ekimenak?

**A. L.:** Berdintasuna, elkartasuna, konpromisoa, ardura, ekitatea eta gizarte kohesioa. Konfiantza oinarritutako harremanetaz ari gara, pertsonetan eta ez diruan oinarritutako ekono-

*"Inor baztertzen ez duen proiektua da, ofizio guztien balorea berdinduz, eta 3. adinekoak ere aktibo mantenduz"*

mia bat sustatzea du helburu nagusietako bat. Bestetik, inor baztertzen ez duen proiektua da, ofizio guztien balorea berdinduz, eta hirugarren adinekoak ere aktibo mantenduz.

Egape ikastolan eta Presentacion de Maria ikastetxean

## Euskararen eguna

### Egape ikastola

Haur eta Lehen Hezkuntzako instalazioetan 50 urteurrenaren kanta abestu, dantza egin, bertsoan aritu... jaialdia animatua izan zen, Aballarri Guraso elkarteak prestatutako txokolate jatearekin amaitu zena. Arratsaldean, Zubitxo plazan euskararen aldeko "flash move" saioa antolatu zuten, Egaperen 50 urteak ospatzeko programatuta dauden ekitaldi ezberdinen baitan. Ekitaldi arrakastatsua izan zen, parte-hartzaileen eta ikusleen kopurua kontuan hartuz.

### Presentacion de Maria

Euskal Herrian Euskararen ikurra egin zuten ostiral arratsaldeko ekitaldian. Larunbatean, berriz, Zubitxo plazan haur tailer ezberdinak eta txokolatada antolatu zituzten. Ikastetxearentzat garrantzitsua dela adierazi zuten ohar bidez: "Euskaraz bizi, hezi eta hazi nahi dugulako".



Egapeko txikien ospakizuna euskararen egunean.



Presentacion de Maria ikastetxeko ikasleak.

## Juan Jose Ibarretxeren hitzaldia Saroben

"Berdintasuna gakoa da. Haur-pobrezia eta eskusioa Euskadin" izenburupean lehendakari ohiak hitzaldia eskainiko du datorren astelehenean –abenduak 19– iluntzeko 19:00etan hasita. Harekin batera arituko da Eva Silvan

Euskal Herriko "Save the Children" erakundeko arduraduna. Eva haur-txirotasuna eta eskusioaren esparruan aditua da eta lan handia egin du European, Hegoamerikan eta Afrikan bere bizitza profesionalean zehar.

## Eguberrietako Ludoteka

Ikasmin akademiak abenduaren 23tik urtarrilaren 5era ludoteka antolatu du. Eskula-

nak, musika edota antzerkia 3 urtetik 13 urtera bitarte, 10:00etatik 13:00etara

## Gurasoak hezitzaile lanetan trebatzeko ikastaroa

Heziketarako joerak, maitasuna, komunikazioa, garapeneren estimulazioa eta gatazken bideraketak edota eguneroko estresa bideratzeko baliabideak eskainiko dituzte Udalak antolatutako ikastarotetan. Bi taldetan eskainiko di-

ra ikastaroak, seme-alaben adinaren arabera: 0-6 urte bitarte eta 7-16 urte bitarte. Izena emateko epea abenduaren 16ra bitarte zabalik izango da Bertan bulegoetan, Urnietako ikastetxeetan eta Gazte Informazio Puntuan.

## Kiroldegian ikastaroak bere horretan eskainiko dira

2017an zehar Udal inbertsio handienetakoa Kiroldegia eraberritzea izango da. Azpiegitura osoa goitik behera aldatuko dela esan daiteke eta lanek iraun bitartean eguneroko martxari nola eustea erronka handi bilakatu da. Dagoeneko irtenbidea aurkitu omen dute, futbol zelaiaren alboan erai-kin-moduluak ezarriko baitituzte. Hartara, Udalak iragarri duenez, "jarduerak oraingo

leku berean mantenduko dira eta zerbitzuen kalitatea ia berbera izango da".

### ERABERRITZE LANAK PILOTALEKUAN

Kirol instalakuntzei dagokionez, frontoiko sarreraren dagoen komuna irisgarritasunaren irizpideen arabera eraberritu da. Bestalde, arrisku egoerak sortzen direnako larrialdietarako irteera berria egin da.

## Ikasgela Lekaion azterketa garairako prest

Lehenengo lauhileko azterketa garaia iritsi denez, Udalak Lekaio kultur etxeko beheko solairuan dagoen gela bat ikasgelarako egokitu du.

Zerbitzua datorren urtarrilaren 27ra bitarte indarrean izango da, asteleheneetik ostiralera goizeko 08:00etatik gaueko 21:00etara.

## Elgoibartarren bisitaldia

Mendaro, Getaria, Abanto-Zierbena, Andoain, Amasa-Villabona eta berriki Elgoibar udalerriko ordezkariak Bertan arreta zerbitzua ezagutzen izan dira Urnietan. Lau urte beteko dira laster Bertan zerbitzua martxan jarri zenetik eta dagoeneko erreferentzia bilakatu da udalerrri askorentzat.

Udalak, herrira bisitan etorri direnekin, prestutasun osoa erakutsi du: "Helburu nagusia herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea izanik, norabide berean lan egin nahi duten udal-txeeekin elkarlanean dihardu Urnietak bere esperientziaren eta ibilbidearen berri emanez".

OSTIRAL HONETAN ZANPATUZ ELKARTEAREN URTEKO BATZARRA AMAITU ETA GERO

# ‘Bistare-Bistare’, estreinaldia Saroben

Ostiral honetan 19:00etan Zanpatuz elkarteak urteko batzarra egingo du Saroben, urte guztiko errepasoa egiteko eta datorrenari begiratzeko. 20:00ak aldera Bistare-Bistare dokumentalaren emanaldia

eskainiko dute elkarteko kide diren Joseba Oiarzabalek eta Andoni Urbistondok. Egunari amaiera ona emateko, Elutxetan afaria egingo dute. Ostegun iluntzean amaituko da izena emateko epea.

**Gailurrera begira bakarrik dagoenak ingurua ahazten du. ‘Bistare-Bistare’ paisaiatz gozatu duenaren ibilbidea al da?**

**Andoni Urbistondo:** Joseba Oiarzabal eta biok azken urteetan trekking lasaiak egiten ibili gara, gailur errazak tartekatuta. Mendi altuak izanda ere, teknikoki errazak egin ditugu. Ekuadorren ibili ondoren, Nepalera joateko asmoa genuen, baina terremoto handi bat medio, bidaia atzeratu eta aurten joan gara. Himalayako bailaran trekking asko egiten dira; Everest eta Anapurna dira ohikoak, baina asko daude horren ezagunak ez direnak. Dokumentalean Anapurnaz gain, 7000 metro inguruko beste hainbat mendi erakusten dira.

**Zer nolako irteerak egin zenituzten?**

**A.U.** Garai batean bideak zirenak, egun pista bihurtu dira. Beraz, bakoitzaren esku dago bidaia nola antolatu. Guk 170 kilometroko bidaia egin genuen 15 egunetan. Martxa ez zen batere astuna izan; goizean hiruzpalau ordu eta arratsaldean beste pare bat egiten genituen; guztira, egunean 15-20 kilometro eginez.

**Ikus-entzunezkoa egitea aldeztu aurretik pentsatuta zenuten, ala egin ahala animatu zineten?**

**A.U.** Aurretik pentsatuta genuen. 2007an Pakistanen proba moduan egin genuen produktua saltzeko asmoz, garai hartan diapositiba emanaldiak bogan zeudelako eta pelikulak botatzeak bazuelako xarma berezia. Oraingoan, lagunei eta ingurukoei erakusteko eta, batez ere, bertako bizimodua erakusteko egin dugu.

**Zer ikusiko du ikusleak ostiral honetan?**

**A.U.** Eguneroko kontuak erakusten ditu. Nola iristen garen, zein traslado egin behar diren mendiraino iristeko, hango paisaiak nolakoak diren, zer jaten



‘Bistare-Bistare’ ikus-entzunezkoa Nepalgo trekking-ean bizitakoaren lekuko da.

den, nola bizi diren... Gure sensazioak eta bizipenak bildu ditugu. Esate baterako, 5000 metroko altueran ez atzera ez aurrera geratu ginen eguraldi txarragatik, eta dokumentalean, mendizale batek egoera hori nola bizitzen duen erakusten dugu. Subtitulu eta off ahotsaren bidez, bertakoei ere hitza eman diegu: zer ikasten duten, zer pentsatzen duten Nepali buruz... Horrez gain, turistekin duten tratua islatu nahi izan dugu, izan ere, izugarritzko errespetua diete turistek, batzuetan lotsa sentitzerainokoa.

**Aurretik jakin ez eta harritu zaituen zerbait aurkitu al zenuten han?**

**A.U.** Batez ere, hango jendearen patxada. Garia, garagarra eta esnea dute, 4000 metrotan bizi dira, baina oso aberats, zoriontsu eta lasai bizi dira. Hori toki askotan ikusi dut, baina Nepalen ez nuen espero eta beraien umiltasunak harritu egin nau. Denbora eta espazioaren aldeztik beste mundu batean bizi dira. Egunean zehar lurra ereiten dute, animaliak jezten dituzte eta turistak etortzen badira bazkaltzen ematen diete, diru hori beraien erosketetako erabiliz. Himalayako zuloan sartuta bizi dira, kezkarik gabe.

**Zuen garai bertsuan andoaindarrak zeuden espedizioak istripu larria izan zuen. Nola bizi zenuen hura?**

**A.U.** Gure hirugarren eguna zen eta lubiziaren ondorioz istripua eduki zutela jakin genuen. Gidariak gertatutakoaren berri eman zigun eta, egia esan, arratsalde mugitua izan zen. Dei asko jaso nituen Aiurritik, Euskadi Irratitik, Eitb-tik, Cadena Ser-etik... Horie guztiei esan nien gertu jazo zela baina gu ez ginela bertan. Botatako zaparradekin normala da lubiziak egotea eta, beraiei gertatu bezala, guri ere gerta lebiguke. Dena den, guk bi ordu lehenago etxera deitu genuen eta ondo geudela esan genien; beraz, alde horretatik lasai geunden.

## Zanpatuz elkartearen batzarra eta afaria

Urteroko batzarra deitu dute ostiral honetarako, iluntzeko 19:00etan hasita. Batzarrera agertzen diren zalantzak argitzeke une aproposa izango da, eta jarraian datorren urteroko irteeren aurreikuspena jakinaraziko da. Ohi bezala, Zanpatuz elkarteko kideak hilabetero jarduera bat antolatzen

**Kezkaz bizi behar al dute trekkinga egitera doazen senideek?**

**A.U.** Normala da kezkatuta egotea, komunikatzea ez delako erraza. Agentziaren bidez kontaktatu beharra dago eta horrek orduak atzeratzen ditu. Ordu horiek familiarentzat izugarritzko sufrikarioa dira. Horrelako istripuak saihestea oso zaila da, zorte txarreko kontua gehiago delako, inprudentzia bat baino.

**Zergatik Himalaya? Zalantzan dagoena nola konbentzitu zenuke?**

**A.U.** Trekkingak egiten dituen batek Himalayara joan beharra dauka, mendikaterik garaiena izanik trekkingaren paradisua

*“Trekkinga egiten dituen batek Himalayara joan beharra dauka, mendikaterik garaiena izanik trekkingaren paradisua delako”*

delako. Edozeinen kurrikulumean egon behar du, bestela ikusten ez diren gauzak topatzen direlako, merkea delako, eroso delako, jendea ona delako, egunero dutxatzeko aukera dagoelako, ondo jaten delako, paisaiak izugarriak direlako, gidariekin harremana oso ona delako... Harro esan dezaket Nepalen egonda nagoela, eta ziurrenik itzultzen saiatuko naiz.

**Zuen bidaietatik hau izan al da zirraragarriena?**

**A.U.** Orain arte egindakoen artean, gogoan ditudan transiberiarrean egindako Mongoliako bidaia, Argentina eta Txileko sei hilabeteak eta, batez ere, Kanada eta Zelanda Berria. Hala ere, azken hau egin beharreko zerbait izan da.

**Etorkizunerako asmorik bai?**

**A.U.** Urteak daramatzat bizikletarekin zerbait egin nahian. Mendiko trekking bat bizikletaz egitea gustatuko litzaidake, uste dudalako jendea eta tokiak ezagutzeko modu hobereana bizikleta dela. Bizikletarekin hilabete batean ehunka kilometro egin ditzakezu. Gidaririk gabe egin nahiko nuke, nire kabuz eta nik nahi dudan moduan antolatuta. Ahal izanez gero bi hilabetetarako Zelanda Berrira joango nintzateke.

**Bukatzeke, Zanpatuz taldeak zer ekar diezaiogon Urnietari?**

**A.U.** Bazegoen honen falta eta uste dut jendearen beharrak asetzeko lortu dela. 400 pertsona inguru mobilizatu dira. Giro onean ibiltzeko aukera ematen du eta jendeari beraien kabuz igoko ez litzuketen mendietara joateko aukera ematen diogu.

## LAUROGEIKO HAMARKADAN JENDAURREAN ARITU ZEN BERTSOTAN

# Azken agurra Iñaki Otaño urnietar bertsolariari

Abenduaren 7an hil zen, 67 urte zituela. Andoingo Sorabilla auzoan bizi zen, eta bertan egin zituzten bere arimaren aldeko hileta elizkizunak, San Martin elizan. Mila Loinazekin ezkondu zegoen,

eta bi alaben (Larraitz eta Naiara) aita zen. Duela gutxi hil zen "Anatx" aita bertsolariaren koinatua zen. Bere garaiko bertsolariek omenaldia eskaini zioten hileta elizkizunean bertan.

Senitartekoez eta lagunek txiki utzi zuten Sorabillako eliza, Otañori azken agurra emateko. Auzo horretan bizi zen familiarekin, baina Urnietako semea zen. Bertsolaria izateagatik izan zen ezagun, batik bat. Hain zuzen, Amurizak irabazi zuen 1982ko Euskal Herriko txapelketan oso maila ona eman zuen, 80 bertsolarien arteko finaleko atarian geratu zelarik. Horretara iristeko, baina, bertsolari autodidakta baten biografia osatu behar izan zuen Iñaki Otaño.

Agirieta baserriko sukaldea izan zen bere eskola. Aitari eta anaiari entzunez, halaxe hartu zituen bertsoak osatzeko jakin behar diren ezaugarriak (errimak, neurriak eta doinuak...). Etxeko sukaldean eta etxekoekin egin zituen lehenbiziko "plazak". Gaztetan, Usurbil, Orío eta Aiako jendearekin jardun zuen maiz; mahai baten inguruan elkarrekin desafioko ari-



Urnietako Agirieta baserrian jaio zen Iñaki Otaño, Oztaran bailaran.

tuz. Berak aitortu izan zuenez, "hizketan bezala bertsotan" eginen ikasi zuen horrela. 1975ean, Andoingo Ontza elkarteak gaz-

teentzat antolatu zuen txapelketan txapela irabazi zuen. Bere dohaia erakutsi izan zuen ere Ordiziako eta Zarauzko gazteen

txapelketetan ere. Horien ondoren heldu zen Euskal Herriko txapelketarako jauzia.

Zenbait plaza egin zituen urte haietan (Xoxoka, Urnieta, Ereñotzu...), baina halako batean bide hura uztea erabaki zuen, ez zetorrelako bat bere bertsokarekin. Publiko aurreko plazak "hotzak" zirela esan ohi zuen. Nahiago izan zuen jendarteko saioetara bideratu bere etorria, taberna eta sagardotegietara. Nolanahi ere, nahiko utzia zuen bide hori ere. Bateriaezina gertatu zitzaion ordu txikietan bertsotan jardun ostean egunez lantokian eta baserrian errenditu beharreko bizi-martxa.

Bertsotan aritzeko belarria jartzea eskolan aritzea baino garrantzitsuagoa iruditu izan bazitzaion ere, Andoingo bertso eskolako maisu izan zen, 1984an. Eskola hartatik irten ziren, besteak beste, Joxe Manuel Oiarzabal eta Jokin Sorozabal.

## AGURREKO BERTSOAK

Sorabillako elizan hauexek Otañori abestu zizkioten hiru bertsoak:

### JOKIN SOROZABAL:

Bertsoa beti izan degu guk lagunarteko aitzaki. Zuriari zuri ta beltzari beltz esango zenion beti. Gure maisua zu izan zinala gaur jende askok ez daki. "Bidean jarri zaituztet eta orain zuek erabaki". Eskutik hartu gintuzulako, eskerrik asko Iñaki.

### MILLAN TELLERIA:

Beti babesa bilatzen degu bikote nahiz gurasoan. Bera agurtzeko elkartu gera bera joan zaigun kasoan. Zenbat mezu on ta gauza eder kantatzen zuen bertsoan. Zenbat atsegin bere baserri, bere baratx ta basoan. Bere onena gorde dezagun geure bizitza osoan.

### JOXE FERMIN ARGIAÑARENA:

Agite baserrira Lanbreta xarrakin. Ez huan topo egin bertso gai txarrakin. Geroztik plazaz plaza, inoiz elkarrekin. Kapritxoaz jua hintzan hi bizitzarekin. Baina ezin izan duk heriotzarekin. Gorria beraz eta, beti berriakin.

## Larre motzean aritzea gogoko zuen bertsolaria

### Joxe Mari Mujika Anatx

"Ez zuen oso gogoko plaza, eta tabernetan edo edozein tokitan hasten zen bertsotan agudo"

"Elkarrekin Hernaniko bertso eskolan hasi ginen 80ko hamarkadaren hasieran. Amurizak ikastaro bat eskaini ostean izan zen hori. 14 urteko mutikoskorra nintzen eta bera nire osaba, eta asko lagundu zidan, dena esan behar bada. Berak ez zuen oso gogoko plaza, eta tabernetan edo edozein tokitan hasten zen bertsotan agudo. Beldurgarri egingen zuen bertsotan!

Xoxokako plazan elkarrekin behin aritu izan ginen, baina bestelakoan, beti taberna giroetan. Gure ezkontza egunean, Asteasuko jatetxean, a ze etorria erakutsi zigun! Bertso ezin ikaragarriagoak bota zizkigun.

1982ko Euskal Herriko txapelketan, Amurizak irabazi zueneko hartan, bertsotan asko eta gozo eginez finalean sartzeko zorian ibili zen. Bertsolari bikai-



Anatx eta Sorozabal Sorabillako elizaren kanpoaldean.

na zela erakutsi zuen orduan, baina nik ez dakit bere buruarekin oso gogorra zelako edo zergatik, sufritu egingen zuen publiko aurrean. Bere ambientean ikusten zenean, orduantxe hasten zen lanean gogoz eta lasai.

Eskola pixka bat bazuela iruditu izan zitzaidan beti. Bertsoen liburu zaharrak ondo ikasiak edukiko zituen, eta horrez gain, etxean ere jasoko zuen zaletasu-

na, ez baita ahaztu behar bere aita, Anizeto, bertsolaria izana zela".

### Jokin Sorozabal:

"Ezinbestekoa izan zen guretzat. Eskertua egongo naiz betirako Iñakirekin"

"Nik berarekin ez nuen denbora askoko harremanik eduki, egia esanda. Gure

bertso eskolako maisua izan zen. 1984an gu La Salle ikastetxean LH ikasten ari ginen, eta bertako irakasle batek Otaño animatu egin zuen bertso eskolan has zedin. Inauteri inguruan, sei bat lagun hasi ginen berarekin, baina laster bi geratu ginen, Joxe Manuel Oiarzabal eta biok. Astean behin bilduz, hurrengo urteko martxorako kito egin zuen eskolak.

Bertsoan kantatu dudana bezalaxe, garbi hitz egingen zuen horietakoa zen Iñaki, eta "bagaude edo ez gaude" edo antzeko mezua transmititu zigun. Gogoa dut, Xoxokako festetan afari batera eraman gintuela; bertan izan ziren ordu-rako kontsagratuagoak ziren Anatx eta Euzkitze ere. Etxera erretiratzeko orduan, gure etxearen aurrean gogoratzen naiz nola esan zigun: "Erraztasuna eta afizioa badaukazue, eta segi! Dediakazioa eta ilusioa jartzen baduzue, aterako zarete aurrera. Hori norberak egin beharreko lana izaten da. Nahi baduzue, egunen batean afarian bilduko gara". Ulertzekoa zen bere jarrera, kamiolaria zen eta baserriko lanak ere

bere gain hartzen zituen; nahikoa egin zuen bertso eskola aurrera aterata bolar da batean.

Horixe izan zen gure unibertsitatea. Ez zen izan bertso eskola metodikoa, akademikoa eta arau jakinetara makurtutakoa, baina ezinbestekoa izan zen guretzat. Horrexegatik eskertuta egongo naiz betirako Iñakirekin. Behin ikusi nuen plazan bertso saio batean, Ereñotzuko jaietan. Saioa bukatu eta hitz batzuk egin genituen, eta ez zen oso gustura azaldu bere buruarekin. Ez zen publiko aurrean disfrutatzen, eta berehala utzi zion plazan kantatzeari".

## ERAKUSKETA ZABALIK DAGO ELKARTEAREN EGOITZAN BERTAN

# Ontza elkartearen historia argazki bidez

Ontza elkarteak bere 75. urteurreneko ospakizunei argazki erakarriaren erakusketarekin emango dio amaiera. Argazki zaharrak eta berriak ikusgai ipini dituzte, elkartean bertan.

25. urteurrenetik hasi eta 75. urteurrenara bitarte, elkartearen bizitza jasotzen duten argazkiak dira. Ia guztiak 1966tik 2016ra ateratakoak. Edu Ulanga izan da erakusketaren arduraduna.



Edu Ulanga erakusketaren arduraduna.

“Argazkiek Ontza elkartearen azken 50 urteak jasotzen dituzte, batik bat. Urteetan atzerago joanda, zaila egin zaigu irudirik topatzea”, adierazi zuen irekiera ekitaldian Edu Ulanga erakusketaren arduradunak. Irudiek elkartearen barne bizitza zein gizarteari begira egin ohi dituen ekintzak (txirrindularitza, ehiza, arrantza, danborrada, kaldereroak...) islatzea izan da Ulangaren asmoa hasieratik. Bitxikerien artean, 1910 inguruko bi argazki aipatu zituen Ulangak: “Batek Oria ibaian Azelaingo zubi ondoan dauden arrantzaleen eszena jasotzen du, eta ehizean bigarrenak. Altxor bikainak dira biak ere”. Ezinbestekoa



Moises, Javier Zatarain, Edu Ulanga, Patxi Lasa eta Gorka de Mateoren argazkiak ikusgai daude Ontza elkartean.

izan da Andoaingo Udal Artxibategiaren laguntza, Moisesen artxibategia eskura eduki ahal izateko batik bat. Beste hainbat egileren argazkiak ere badaude, besteak beste, Javier Zatarainen, Edu Ulanga, Patxi Lasa eta Gorka de Mateorenak. Horiez guztiez gain, Joxe Mari Tolosa bazkidearen artxibategi pribatuaz ere baliatu dira. Erakusketa irekita egongo da, urtarrilaren 7ra bitarte.

## 1966KO ARGAZKI MISTERIOTSUA



Argazkiak ikusmina sortu du elkartean. Irekierako ekitaldian aitortu zutenez, ezinezkoa egin zaie hiru emakumeak identifikatzea. Norbaitek ezagutuko balitu, Ontzakoek gustura jasoko lituzkete argazkiko izen-abizenak.



52 argazki ikusgai daude elkarteko hormatan. Telebista pantailan, berriz, beste 300 argazki gehiago.



Joxe Mari Tolosa bazkidearen artxibategiko hainbat argazki ikusgai daude.

ABENDUAREN 23AN IKUSTEKO AUKERA DAGO, 17:30EAN HASITA

# ‘Pixi Post eta opari emaileak’, estreinaldia Basteron

Andoingo Somuga produktorak Gabon garaiko *Pixi Post eta opari-emaileak* film luzea osatu du. Abenduaren 23an, estreinuaren egun berean eskainiko dute Andoingo Bastero kulturgunean arratsalde-

ko 17:30ean hasita. Filmaren egileek Gabonetarako mezu argia duela nabarmendu dute: “Gora aniztasuna!”. Atsegina eta akzioz beteriko dela iragarri dute.

Iaz *Yoko eta lagunak* filma aurkeztu ondoren, 4 eta 9 urte arteko haurrei zuzendutako *Pixi Post eta opari-emaileak* film berria estreinatuko du hurrengo ostiralean Andoainean kokatzen den Somuga produktorak, euskaraz nahiz gaztelaniaz. 91 minutuko iraupena du filmak eta irudi dotore eta alaietz gain, mundu gero eta globalizatuago hau ulertzeko bidea eskainiko die haur nahiz helduagoei.

#### ANDOINGO EKOIZPENA

Somuga produktorako kideek azaldu dutenez, *Pixi Post* filmak lehen aldiz mundu zabaleko Gabonetako jeinuak elkarlanean aurkeztuko ditu, bata besteari laguntzen eta kultura aniztasuna babesten. “Gabo-



netako postal koloretsu eta irudimentsua erakusten du Pixi Postek, haurrentzat ulergarria den formatu batean. Pixi Post

Gabonetako film ezberdin bat egiteko ahalegina da bai itxuraren aldetik -koloretsu eta originala- eta bai edukien aldetik;

*“Gabonetako postal koloretsu eta irudimentsua erakusten du Pixi Postek, haurrentzat ulergarria den formatu batean”*

baliok eta akzioa, edo umorea eta gogoa orekatzen saiatzen delako”.

#### FITXA TEKNIKOA

- Zuzendaria: Gorka Sesma.
- Gidoilaria: Edorta Barruetabeña.
- Sortzaileak: Juanjo Elordi, Edorta Barruetabeña.
- Arte Zuzendaria: Mikel Louvelli.
- Musika: Michael Plowman.
- Banatzailea: Barton Films.

**EGUBERRI eta URTE BERRI on!**

**Andoain bizi!**

Egin itzazu erosketak herrian

#### Abenduak 12, astelehena

**SALKINEN EGUBERRIETAKO KANPAINA**  
Gabonetako 45 sorta irabazteko aukera.  
Urtarrilaren 5a bitarte.

#### Abenduak 17, larunbata

**EGUBERRIEN ATARIKO FESTA**  
**11:30-13:30** Gaztain erreak Juanita Alkain plazatxoan, Urkik antolatuta.  
**11:30-13:30** Kale animazioa txarangarekin.  
**17:30** Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrieta plazan, auzoko jai-batzordeak antolatuta.  
**19:00-22:30** Gabonetako festa La Salleteko jolastokian, Izartxok antolatuta.

#### Abenduak 18, igandea

**17:00** "Txirri, Mirri, eta Txiribiton eta Patxistein doktorea" ikuskizunaren estreinaldia Basteron.

#### Abenduak 21, asteazkena

San Tomas Egunean, Txistorra postuak jartzeko aukera Juanita Alkain plazatxoan. Eskaerak egiteko epea abenduaren 14ra arte zabalik.

#### Abenduak 24, larunbata

Aita Larramendi ikastolaren eskutik, Olentzerori harrera:  
**17:00** Goikoplaza. **18:30** Espigoia.

#### Abenduak 26-30

**IKUSZIRKUS.** **20:00** Bastero kulturgunean.  
**GAZTE ASTEA.** Ekitaldi sorta herrigunean.

#### Abenduak 30, ostirala

**16:00-20:00** Gabonetako Haur Parkea Allurralden.  
**16:30** Kale animazioa dultzaineroekin. Ibilbidea: Karrika-Zumea plaza.  
**16:30-18:00** Pajeen irteera Errege Magoei zuzendutako eskutitzak jasotzeko. Ibilbidea: Sorabilla-Goikoplaza. La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta.

#### Abenduak 31, larunbata

**11:00-14:00** Gabonetako Haur Parkea Allurralden.  
**11:00-13:00** Kale animazioa txistulariekin.  
**11:30** San Silvestre lasterketa Zumea plazan.  
**16:00-19:00** Gabonetako Haur Parkea Allurralden.  
**00:45-04:00** Urtezar gaueko DJ festa Nafarroa plazan.

#### Urtarrilak 3-4

**GAZTE ASTEA**  
Ekitaldi sorta herrigunean.

#### Urtarrilak 5, osteguna

Errege Magoen etorrera, La Salle Berrozpe ikastetxeak antolatuta:  
**18:30** Zumea plaza.  
**19:30** Goikoplaza.  
Salkinen Eguberrietako kanpaina: Gabonetako 45 sorta irabazteko aukera. Parte hartzeko azken eguna.

#### Urtarrilak 7, larunbata

**18:00-21:00** Bertso poteoa eta trikixka.

## Estatu mailako saria jaso du Leizaran institutuak



Josune Iñarra eta Leontxo Valverde Leizaran BHI institutuko irakasleak sari banaketa ekitaldian. Erdian Luis Ricote Unibertsitate Politeknikoaren Injenieritza Agronomiko Goi Mailako Fakultateko zuzendaria.

Leizaran BHI institutuko DBH 4. mailako ikasleak finalista geratu dira estatu mailan antolatutako III. Eskola-baratze lehiaketan, "Baratzetik platerera" proiektuarekin. Lehiaketa honen helburu nagusia, diziplinen arteko hezkuntza proiektu bat eratzea da. Proiektu honek,

nekazaritza, elikadura ekologikoa eta kontsumo jasangarria ardatz hartuta, "Eginez ikasi" hezkuntza sistema kooperatiboa martxan jartzea ahalbidetzen du. Saria Madrilgo Unibertsitate Politeknikoaren Injenieritza Agronomiko Goi Mailako Fakultatean jaso zuten. Zorionak!



Leizaran institutuko baratzea.

## Tailer Teknologikoa Andoainen abenduaren 26tik 30era

La Salle Berrozpek LHko 5-6. mailatako ikasleentzat tailer teknologikoa antolatuko du Eguberri hauetan. Robotikari eta bideojokoen sorkuntzari buruzkoa izango da, datorren abenduaren 26tik 30era goizeko 09:00etatik 13:00etara. Ikastetxeko ikasleek nahiz beste ikastetxe ba-

tuetako ikasleek parte hartu ahal izango dute. Izena emateko epea abenduaren 21ean amaituko da. Horretarako, datu guztiak (izen-abizenak, maila eta telefonoa) jasotzen dituen mezu elektronikoa bidali behar da honako helbide honetara:

lsbandoin@lasalleberrozpe.com

## Eguberrien atariko festa

Larunbat honetan ekitaldi ugari izango da Andoainen, Eguberrien atarian. Goizean Urki dantza taldeak gaztain jatea antolatu du Juanita Alkain plazan. Ordu horietan txaranga batek herriko kaleak alaituko ditu.

Arratsaldean Etxeberrietan Olentzerori gutuna emateko aukera izango da, jai batzordeak antolatuta. Txokolatete jatea ere izango da.

Eta iluntzean La Salle Berrozpe ikastetxeak Gabonetako festa antolatu du.

Guraso taldearen ekimenez, Bastero plazan bildu ziren

## Jostailu bilketa solidarioa Ondarretaren eskutik



Bigarren urtez jarraian Ondarreta ikastetxeko gurasoek jostailu bilketari ekin diote. Argazkian, aurtengo bilketa Basteron.

Jostailuen bilketari ekin zioten Ondarreta ikastetxeko gurasoek joan zen larunbatean. Ines Miron guraso elkarteak kideak adierazi zuenez, "iaz hasi ginen, eta aurten jende gehiago hurbildu zaigu. Baita jostailu gehiago utzi ere". Denetik bildu ahal izan zuten gurasoek, "Caritasen eskuetan utziko ditugu jostailu guztiak; primeran etorriko zaio elkarteari, herriko behartsuen artean urtero egin ohi duten kanpainari begira".

Ekimena ez da jostailuak jasotze hutsera mugatzen. Gurasoek elkartasunaren eta birziklatzearen ideiak zabaldu nahi dituzte bai Ondarretako ikastetxeko ikasleen artean, eta baita Andoaingo herritarren artean ere. Elkartasunaren printzipioa, geure artean badirelako familiak ekonomikoki ezinean dabiltzanak eta luxuzko kontua egiten zaielako jostailuak erostea.



Iaz baino jostailu gehiago bildu dituzte aurten.

Eta birziklatzearen printzipioa, erostearen erosteaz, jostailu batek gero eta gutxiago irauten duelako hurren eskuetan; erabili berritan, jada baztertu egiten da jakinda beste bat erosi dela laster batean.

Ondarreta ikastetxeko guraso elkarteak San Tomas egunari be-

gira jarri da orain. Abenduaren 23an postua jarriko dute txistorekin eta oilasko saltxitxekin.

Abenduaren 24an, berriz, kalera irtengo dira ikastetxeko irakasle, haur eta Olentzerorekin batera, Andoaingo kaleak Gabon kantekin alaitzeko asmoz.

## KALEJIRA EUSKARAREN EGUNEAN



Aita Larramendi ikastolak Euskararen nazioarteko eguna ospakizun bilakatu eta kalejira antolatu zuen Juanita Alkain plazatik Zumea plazaraino. Trikitilariak, erraldoi eta buruhandiak, dantzariak..., festarako osagai guztiak izan zituen. Gainera, Argitxok bere agerpena egin zuen Eroskiren gaineko etxebizitza bateko leihotik. Goxokiak banatu eta besoak zabalik agur esan zien haur guztiei.



Abenduren 20an goizeko 10:30ean hasita, ekitaldi aretoan

## “Ekonomia gurean” solasaldia Basteron



Zarautzen egin zuten Ekonomia Gurean aurreko solasaldia, azaroan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak babestuta, Tokikomek eta Aiurrik elkarlanean **Ekonomia Gurean** saioaren hirugarren atala grabatuko dute Andoaingo Basteron, datorren asteartean. Urko Aristi kazetari ezagunak zuzenduta, gaur egungo egoera ekonomikoaz eta etorkizunaz jardungo dute. Ekitaldia irekia da, eta bertaratu ezin duenak internet bidez emisioa zuzenean jarraitu ahal izango du Aiurri.eus webgunean.

Urriaren Ekonomia Gurean telebista saioaren lehen atala Bergaran grabatu zuten, eta bigarrena azaroan Zarautzen. Andoaingo saioan, Beterri-Buruntza ardatz hartuta, ekonomia gaur eguneko argazkia eta etorkizuneko erronkak

izan dituzte aztergai. Bereziki hizpide izango dituzte honako kontzeptuak; berrikuntza, nazioartekotzea, lehiakortasuna, dibertsifikazioa, prestakuntza eta kualifikazioa, lankidetzak edota politika publiko egoiak...

**HIRUGARREN SAIOA ANDOAINEN Larramendi Bazkunaren eta Andoaingo Udalararen lankidetzarekin, Aiurri astekariak hirugarren saioa antolatuko du. Aste-kariarekin batera elkarlanean aritu dira eskualdeko hedabideak, hots, Hernaniko Kronika, Usurbilgo Noaua! eta Lasarte-Oriako Txintxarri. Tokikom euskarazko hedabideen federazioaren atarkepean, ekonomia saioa Gipuzkoako Foru**

Aldundiaren babesarekin egingo da.

Basterokoan Beterri-Buruntzako errealitatearen protagonista diren eragileek parte hartuko dute. Horretarako, hizketaldian hizlari izango dituzte tokiko garapena eta ekonomian aditua den Orkestra, Lehiakortasunerako Euskal Institutuko ordezkari bat eta Beterri-Buruntzako ekonomia gertutik ezagutzen duten bigonbidatu: **Mendi Group** enpresako **Ibon Lete** eta sagardo ekoizleen mundua gertutik ezagutzen duen ordezkari bat.

Ekitaldia irekia da, goizeko 10:30ean hasi eta 11:30ean amaituko dena. Sarrera doakoa izango da.

Abenduren 17an goizean zehar Goikoplazan eta Juanita Alkainen

## Sahararen aldeko diru bilketa, larunbat honetan

**Hurria Sahara Elkartea** Andoaingo elkarteak diru bilketa antolatu du Saharako errefuxiatuek bizi duten egoera humanitario larria eta elikagai krisi latzari aurre egiteko.

Larunbat honetan, goizeko 10:00etatik aurrera Goikoplazan jarriko dute mahaia eta 12:00etatik aurrera Juanita Alkain plazan. Diru bilketa egiteaz gain, 2017ko egutegiak ere salduko dituzte.



Diru bilketa honekin Sahararen aldeko 13. Euskal Karabana: Piztu Itxaropena kanpai-

nari hasiera emango diote Andoain. Jasotako elikagai eta dirua 2017ko otsaila aldera irtingo da Euskal Herritik Tindufeko kanpalekuek.

Bertan bizi duten miseria gorriaren adierazle gisa aipa daiteke Sahara Ilargi Gorri Erdiak eta ACNURek diotenez, anemia handia dagoela Saharan: haurren eta erditzeko dauden emakumeen %61 dauka anemia jota.


## Azterketa Soziodemografikoa



Andoaingo Udalak herriko Gislan enpresaren eskutik azterketa soziodemografikoa egin du, 2025erako adineko-

en biztanle kopurua eta euren beharrak ardatz hartuta. Datu guztiak andoain.eus webgunean ikusgai daude.

## Andoaingo Caritas elkarteak urteko balantzea egin du



(frutak, berdurak, haragia, arraia...).

Ama Kandida etorbidean kokatzen den egoitzan, 1.702 arropa poltsa sailkatu dira.

Horiekin, 136 familiei (328 pertsona guztira) beharrak asetzen saiatu dira lehenbizi; Hernaniko Sos Arrazakeria eta Tolosako Sahararen aldeko elkarteei ere banatu zaizkie poltsak; gainerako guztia, birziklatzera eraman dute.

Andoaingo Caritas elkarteak 2015/2016 ikasturteari dagokion balantzea eman du jakitera. Hainbat arlotan egiten du lana, eta guztiei buruzko xehetasunak azaldu ditu.

Hain zuzen, bere jardun publikorik ezagunena dena burutu zuen atzo Bastero kulturagunean. Bertan, Felicidad Diez Martinez emakumeari eman zitzaion Joxe Mari Olazabalen Bidea izeneko saria; Andoaingo zaharren egoitzan bizi diren aitonamonei euren aisialdian laguntza eskaintzeagatik eskaini diote esker oneko aitormena. Ekitaldiaren kronika, ostegunegun bertan izango da irakurgai sarean, Aiurri.eus web orrian.

Caritasek Zumea kalean daukan bulego nagusian, 105 familiei egin zaie lehenengo harrera. Elkarriketa baten bidez, familia horien beharrak aztertu eta abian jarri dituzte aurrera begirako pausoak.

Agustin Leitza 2ko egoitzan, Janari sailean, behar-beharrezko janari loteak eskaini dituzte astean behin, hama-bostero edo hilero, kasu bakoitzaren arabera. Elikagai horiek Europako Janari Bankutik, Gipuzkoako Diputazioetik eta herritarren dohaintzatik lortu dituzte Caritaseko boluntarioek. Janari freskoak, berriz, Andoaingo elkarteak berak erosi izan ditu

Caritasek egoitza berean dauka tresneriari bideratutako saila, eta andoaindarrek eskaintako era guztietako tresneriaz bete dute. Eskura heldu bezain pronto banatu ahal izan du guztia, baina hala ere, ezin izan ditu eskatzailen premia guztiak asetu. Alde horretatik, Caritasek deialdi berezia egin die Andoaingo herritarrei beren esku jar ditzaten ohe, koltxoi eta antzeko altzariak.

Azkenik, Caritasek azken urteetan abian jarri dituen hiru proiekturen inguruko balantzea egin du. Batetik, eskola-laguntza deitzen dena dago. Bizpahiru ikasle osatutako hamar talde osatu ditu, eta horietan hogeita hamahiru haurrei eskola eman zaie; hamahiru boluntario izan dituzte irakasle. Bigarrenekin, jostunen ikastaroak funtzionatu du urtean zehar; hogeita bi lagunek hartu dute parte bertan.

Azkenik, Andoaindarrek eskaintako jostailuak jaso dituzte, batik bat Ondarreta ikastetxeko gurasoek jasotakoak, eta horiek denak sailkatu ostean, loteak egin eta egun seinatuetan (urtebetetzeak, Gabonak, erregeak..) banatu dituzte, edo banatzeaz dira ondorengo egunetan.





## KIROL ALBISTEAK

### San Silbestre lasterketa, goizez Andoainen



Zumea kaletik Zumea plaza aldera lasterkariak, iazko edizioan.

Goizeko 11:30ean hasita, San Silbestreren bigarren edizioa ospatuko da Andoainen. Lasterka itzuli ekimena izango da berriro ere antolatzailea, eta Txitibar plazan hasi eta bukatuko da. Aurtengorako bi berrikuntza iragarri dituzte.

Lehenengoa ibilbideari loturikoa da. Distantzia bertua izanagatik ere, ibilbidea luzatu egin dute eta lasterketak iaz

baino itzuli bat gutxiago izango du. Txitibar plazatik Gazte-txerainokoa izango da ibilbidea, bi itzulikoa, eta denera 5.250 kilometrokoa.

Bestetik, aurtengorako polilena edo originalena sarituko dute.

Izen-ematea 5 eurokoa izango da eta denda eta taberna ezberdinek emandako opariak zozketatuko dituzte.

Antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkiete opariak emango dituzten tabernari eta dendariei eta baita babesleei ere. Honako hauek: Mapfre aseguruak, Urrats inprimategia, Pinturas Ferro, Otamendi taillerrak, Olajauna taberna, Belkoain-Azpi taillerrak, Bengoetxea autoeskola, Ciclos Patxi, Ceramicas Javier eta Irunberri elkarteak.

### Haur nahiz helduentzat, Urnietan bazkalostean



Arratsaldeko 16:00etan hasita, haur krosa eta helduen krosa egingo dute San Juan plazan hasita. Poxta Zahar asanbladak antolatuta, aurtengorako Pausoka eta Zanpatuz elkarteekin lankidetzarekin.

### Eskuzko binakako finalak Urnietan, larunbatean

Larunbat honetan Gipuzkoa mailako eskuzko binakako bi final jokatu dira Urnietan. Arratsaldeko 16:00etan hasita, Zumaia-Gazteleku 1 kadete mailan.

**SENIOR MAILA:**

**URNIETA-ORIO**

**JULEN LOITEGI-IMANOL ODRIOZOLA**  
UKE taldeak herritarrek animatzera joateko dei egin die.

### Jardunaldi irekia Urnietan



#### Hernani Kirol Elkarteak

Patin talde bateko partaide izan nahi duzu? Entrenoa, lasterketak, irteerak, ... Abiadura gustoko baduzu edo patin lasterketetan parte hartu nahi baduzu prestatu zaitez gurekin. Hernaniko Kirol Elkarteak abiadurako irristaketa ezagutzera emateko doako jardunaldi irekia antolatu du adin guztietako jendearentzat.

Teknika ikastaroa: Abiadura teknikaren hastapena, taldean patinatzeko segurtasuna eta konfiantza eta frenatzeko teknika ezberdinak landuko dira. 13 urtetik aurrerakoek

zuzendua, gazte zein helduentzat.

Patin mekanika ikastaroa: Patinen mantenua nola egin, nola garbitu eta piezak aldatzen erakutsiko da bertan.

Patin jolasak: 7 urtetik aurrerakoentzat.

Parte hartzaileek patinak, eta kasuak eraman behar dituzte. Indarrak berreskuratzeko pintxo goxoak banatuko zaizkie partaideei. Informazio gehiago: 669 837 409 (Garikoitz).

**Abenduak 26, astelehena.**

**11:00-13:30.**

**Salesiar ikastetxea.**

### Senior mailako futbola

**13. JARDUNALDIA.** Emaizak:

EAS08 2-1 Euskalduna

Hernani 2-0 Urnieta

**14. JARDUNALDIA.** Asteburuan:

Deusto-Euskalduna. Lar, 19:00.

Urnietan-Sanpedrotarra. Lar, 15:30.

**SAILKAPENA.** 10. jardunaldia:

1. Trintxerpe

2. Añorga

3. Euskalduna

4. Allerru

11. Urnieta

27

26

24

24

15

### Futbola, senior neskek

**12. JARDUNALDIA.** Emaizak:

Orioko 4-1 Urnieta

**13. JARDUNALDIA.**

Urnietan Amaia Berri.

Larunbata, 17. 19:00.

**SAILKAPENA.** 11. jardunaldia:

1. Ordizia

2. Touring

3. Urnieta

4. Ostadar

28

25

23

22

### Futbola, kadete neskek

**12. JARDUNALDIA.** Emaizak:

Orioko 1-4 Urnieta

Zarautz A 0-1 Euskalduna

**13. JARDUNALDIA.**

Eguberrien ostean.

**SAILKAPENA.** 11. jardunaldia:

1. Euskalduna

2. Urnieta

3. Zarautz A

4. Intxurre

28

24

18

16

Oharra: Biltzar argitaratzaileek ez dute beregain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien gaineko erantzukizunik.

**Aiurri**  
BETERRI-NURINTZAKO ASTEKARIA



TOKIKOM

Ekoizlea:



Laguntzaileak:



Aldizkari honek bi udalerri hauen dirulaguntza jasotzen du:



Argitaratzailea:



**Aiurri eskuragarri:**

Etxez etxeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 35 eurokoa da. Urnietan, 30 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalguneetan.

**Egoitza Orokorra:**

Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. Faxa: 943 300 731. @: andoain@aiurri.eus. Webgunea: www.aiurri.eus

**Zuzendaria:**

Jon Ander Ubeda. andoain@aiurri.eus  
**Erredaktoreak:**  
Xabier Lasa, Joxeba Lizeaga, Izarne Olano eta Jon Unanue.

**Diseinua:**

Maddi Trutxuelo eta Jon Ander Ubeda. diseinua@aiurri.eus  
**Publizitatea:**  
Fernanda Irazu. publizitatea@aiurri.eus

**Zorion agurrak, merkatu txikia:**

diseinua@aiurri.eus  
www.aiurri.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1078/04.  
**ISSN:** 1698-4870.  
**Tirada:** 4.000 ale.

**Kudeatzailea, banaketa arduraduna:**

Garbiñe Ugartemendia. idazkaritza@aiurri.eus. Tel.: 943 300 732

**Banatzaleak:**

Mikel Arregi (Andoain), Garazi Usandizaga (Urnietan).  
**Inprimategia:**  
Zeroa Multimedia. Huarte-Iruñea.

# Agenda

ABENDUAREN 16TIK AURRERA • AGENDAN IRAGARTZEKO: andoain@aiurri.eus

## Zinema

**Andoain, Bastero**

- **"Aliados"**, urteko azken film emanaldiak. Abenduak 17, larunbata: 19:30, 22:00. Abenduak 18, igandea: 19:30. Abenduak 19, astelehena: 19:30, 22:00.
- **"Pixi Post"**, estreinaldia. 17:30. Abenduak 23, ostirala.

**Urnietan, Sarobe**

- **"Bistare bistare"** ikus-entzunezkoa, Joseba Oiarzabal eta Andoni Urbistondoren eskutik. 20:00 Zanpatuz elkatearen batzarra eta gero. Abenduak 16, ostirala.
- **"Albert"**, haurrentzat: 16:00, 18:30. Abenduak 18, igandea.

## Antzerkia

**Andoain, Bastero**

- **"Elegy"** antzerkia, gaztelaniaz. Errefuxiatuen drama hizpide duen obra, 21:30. Bastero. 12 euro. Abenduak 16, ostirala.

## Erakusketak

**Andoain, Bastero**

- **"Esku azpi begi"** EHUko Arte Ederretan ikasitako hiru artista gazteren eskutik. Azken eguna: Abenduak 30, ostirala.
- **"Ontza"** elkartearen historia biltzen duen argazki erakusketa. Azken eguna: Urtarrilak 7, larunbata.

## Farmaziak

**Eskualdea**

- Andoain: **Ansa**. Urnietan: **Tena**, Astigarraga.
- Gaez: **Urrutia**, Hernani. Abenduak 3, 4.
- **Abenduak 25:** Arzallus (Andoain), Tanco (Urnietan).

## Ikuskizuna

**Andoain, Bastero**

- **"Txirri, Mirri eta Txiribiton"** haur antzerkia, estreinaldia. 17:00. Bastero. 4 euro. Abenduak 18, igandea.

## Kanpaina

**Andoain**

- Salkinen Eguberrietako kanpaina, Gabonetako 45 saski irabazteko aukera. Urtarrilaren 5a arte.

## Ospakizunak

**Andoain**

- **Abenduak 17, larunbata** Eguberrien atariko festa: 11:30-13:30 Gaztain erre-ak Juanita Alkain plaza-txoa, Urkik antolatuta. 11:30-13:30 Kale animazioa txarangarekin. 17:30 Olentzero, gaztaina erreak, txokolatada eta opariak Etxeberrietan plazan, auzoko jai-batzordeak antolatua. 19:00-22:30 Gabonetako festa La Salleko jolas-tokian, Izartxok antolatua.

**Urnietan**

- **Abenduak 21, asteazkena** Santomas eguna, Iñistorra euskaltzaileen biltzarren eskutik: 17:30 Musika, txistor eta gaztain jatea, usadiozko sagardo dastaketa eta lehiaketa, gaztain jatea eta saskiaren zozketa San Juan plazan.

## Bilera

**Urnietan**

- Denbora Bankua martxan jartzeko saiakera. Ekitaldia irekia da. 19:00 Lekaio Abenduak 15, osteguna.

## Eguberriak

**Andoain**

- **Eguberrietako argien piztuera:** La Salle Berrozpeko ikasle-ek egindako argiak jartzeaz gain, apaingarri gehiago jarriko dira. Abenduak 15, osteguna.

**Urnietan**

- **Eguberrietako argien piztuera:** Salesiar ikastetxeko ikasle talde batek iaz egindako lana osatu egin du. 18:00. Etxeberri plaza. Abenduak 22, osteguna.

## Dantza

**Urnietan**

- **"Eguberrietan dantzan: Dantza garaikidea"**. Plaza mugatuak dira. Informazio gehiago Saroben bertan. Ane Anzaren eskutik. Goizez. Sarobe. Abenduak 26-29.
- **"Hip hop: Sergio Nguema"**. Plaza mugatuak dira, eta izen-ematea zabalik dago Saroben bertan. Goizez. Sarobe. Abenduak 30-Urtarrilak 5

## Euskara

**Andoain**

- Andoaingo mintzapraktika egitasmoek hilabete honetarako egitarau oparoa pres-tatu dute: Afari merienda: 19:00. Peña Santa Krutz. Abenduak 15, osteguna. Bidaide egitasmoa: 17:00. Andoaingo Ludoteka. Abenduak 16, ostirala. Informazioa: 943 59 17 04. andoain@aek.eus.

## Tailerra

**Andoain**

- Hezkuntza alternatiboaren inguruko hitzaldi tailerra. 10:30. Urigain. Abenduak 17, larunbata.

## "Ez gaude udan fest" Eguberrien atarian

Datorren abenduaren 23an Andoaingo Gaztetxean "musika maratoia" izango da hasiberriak diren **Pheasant S Tears, The Wc Grooves, Sai-naiz eta Ixo!!!** taldeen eskutik. Bertara gerturatzeko denak denetik entzungo du: Punk-a, post HCa, Rock& Roll klasikoa, Hard rocka,

Heavya, Stoner rocka, Pop rocka, Rock psicoteliko, Progressive rocka... Talde al-daketak azkarrak izango dira denek ere instrumentu eta material berdinarekin joko baitute.

Abenduak 23, ostirala  
22:00. 5 euro  
Andoaingo Gaztetxea

## ZORION AGURRAK

**ZORIONAK**



**Lide** Lizeagak abenduaren 9an urteak bete zituen. 6 urterekin ere, zure ametsak egia bihurtzen jarri dezazula. Maitagarría zara! Etxekoak.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Abenduaren 6an zure urtebetetzea izan zen. Aupa neska! Ongi pasa! Ibai, Aitor, Jesus, Arturo eta Pili. Muxuak denon partetik. Maite zaitugu.

**URNIETA**


**ZORIONAK**



**Maddi** Loiarrek 7 urte beteko ditu abenduaren 22an. Baietz kandela guztiak putzaldi batean itzali! Muxu goxoak eta besarkada. Jon, aita eta ama.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Irati** Rosco Muñozek 9 urte bete zituen abenduaren 11n. Zorionak bihotza etxeko guztien partetik!!! Muxu handi bat.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Abenduaren 8an **Adurrek** 4 urte bete zituen. Muxu pilo zuretzat etxeko partez!! Zuk diozun bezalaxe, ilargiraino eta buelta maite zaitugu!! Etxekoak.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



**Mikelek** 2 urte bete zituen hilaren 1ean. Denis, lehengusu Amaia eta Irak, izeba Maricarmen eta osaba Jose Mari-ren partetik zorionak! Ederki pasa genuen.

**URNIETA**

**ZORIONAK**



Kaixo **Maddi** naiz eta abenduaren 6an jaiozen **June** nire ahizpatxoarekin txoratzen nago! Jolasteko eta gozatzeko irrikitan. Askoi maite zaitugu June! Muuuu.

**ANDOAIN**

**ZORIONAK**



Zorionak **Elene!** Ai ama... 9 urte puska dagoeneko. Goza ezazu-la pila zure egunean. Gora Erre-ala!! Muxuak, etxekoak. Aita-txo, Amatxo eta Maddi.

**ANDOAIN**



Abenduaren 14an 7 urte bete zenituen, **Ane**. Beti bezain alai jarraitu. Muxu handi bat etxeko partez.

**ANDOAIN**




**Janirek** abenduaren 9an 7 urte bete zituen. Zorionak zure lagunaren partetik. Muxu potoloak!

**ANDOAIN**



**Irati** Rosco abenduaren 11n 9 urte bete zituen. Zorionak Nahia, Adriana, Sara, Leire, Gari, Oihan eta Andoni.

**URNIETA**



Abenduaren 16an, **Eider** Ceak 12 urte. Zorionak eta egun polita igaro. Mariaje, Javi eta Nahia. 12 muxu.

**URNIETA**

**ZORION AGURRAK** Erraza da, eta dohainik. Emaillez: diseinua@aiurri.eus | Whatsapp: 619 163 537

**DATORREN AIURRI ASTEKARIA: ABENDUAK 22, OSTEGUNA**